



Euskararen Aholku Batzordearen lehenengo indarraldian, euskara lan-munduan gaia lantzen zuten bi dokumentu aurkeztu ziren, honako hauek hain zuzen ere:

Euskararen Normalizazioa Enpresa-munduan. Oinarrizko erizpideak. 1990eko apirila.
Lan mundua eta euskara. Hizkuntza normalkuntzarako bideak.
1992ko uztaila.

Txosten hauetan oinarrituko gara, bertako zenbait pasarte hona ekarriz eta ahal dugun neurrian ekarpen berriak eginez.





EUSKARAK LAN-MUNDUA BEREGANATZEA EZINBESTEKOA DU.

Euskarak irabazi behar dituen esparruen artean sozioekonomikoa dago. Ez da bakarra horregatik. Hezkuntza, komunikabideak, administrazio publikoa, etab. ere hor daude. Esparru horretan esperientzia eta lorpenak eskuratu ditu euskalgintzak. Lorpen horiek garatu eta iraunarazteko euskarak lan-munduan tokia hartu behar du.

Askotan entzuten da euskaraz eskolaratutakoei dagokiela euskara ekartzea lan-mundura eta horiek era naturalean burutuko dutela euskararen normalizazioa lan-munduan. Uste hau okerra dela adierazi du, ordea, hizkuntz plangintzako zenbait adituk. Lantoki batean lanean hasten den langile berria bertako komunikazio-zirkuituetan parte hartzen hasten da eta bera da komunikazio horietarako bitarteko eta kodeak ikasten dituen. Sartu berriak nekez eragin dezake, bestelako laguntzarik gabe behintzat, ohitura-aldaketarik. Alderantzizkoa da normalean gertatzen dena: hezkuntzan lortutako euskarazko trebetasunak erdoildu eta kamustuz joango zaizkio gaztelania besterik erabiltzen ez duelako eta urte batzuen buruan, laneko funtzioetarako bederen, ez du euskara erabiltzeko erraztasunik izango.

Benetan kezagarria litzateke joera horri kontra egiteko bitartekorik ez jartzea, zeren eta beste esparruetan egindako lana zalantzan jar baitezake lan-munduak. Gazteek ez diote funtsik ikusiko euskaraz hezi eta trebatzeari, hemendik urte batzuetara beren lantegiak izango diren horietan erdara besterik ez dela erabiltzen konturatzen diren heinean.





Lan-munduan euskararen erabilera normalizatzek beraz, berariazko hizkuntz politika bat diseinatu eta gauzatzea eskatzen du.





EUSKARA BEREGANATZEAK ONURAK EKARRIKO DIZKIO LAN-MUNDUARI.

Iharduera sozioekonomikoa gizarte jakin batean kokatuta dago eta halabeharrez, gizarte horretako norbanakoen kezka eta nahiak bertan isladatu egiten dira. Euskal gizartea, gizarte elebiduna da eta euskara biziberritzearen aldeko norantzan doan gizartea gainera. Norantza horretan mugitzen ari denaren adierazleen artean bat azpimarratuko dugu eta hauxe da, hezkuntzan euskal eredueta matrikulazioan gertatzen ari den etengabeko hazkundera.

Bestalde, bertako instituzio publikoek ere ezarriak dituzte euskara normalizatzeko oinarritzko lege eta dekretuak eta bide horri ekiteko konpromezu eta erantzukizunak hartu dituzte euskal gizartearen aurrean.

Lan-munduak ezin dio bizkar eman euskara biziberritzearen aldeko prozesu honi; aitzitik, hizkuntz gestioa beregain hartzen duten enpresa eta sektoreek onurak izango dituzte:

Euskarazko zerbitzua eta produktuak eskaintzen dituzten enpresak kalitate handiagoa eskaintzen ari dira. Bere zerbitzu eta produktuek balio erantsia dute eta horrek, beraz, lehiakideen aurrean abantailan jartzen ditu.





Enpresa, organizazio den aldetik, bere partaide diren gizabanakoen kezka eta gogoak jaso eta erantzuna ematen dien neurrian, gizabanako horiek enpresarekin identifikazio handiagoa sentituko dute. Hizkuntz proiektuan inplikatzaren diren langileak enpresarena den proiektu batean inplikatzaren dira, lantoki horretan konpaktazio soziala eragin eta areagotuz. Ondorioz, euskaraplanak lanerako motibazio-tresna bihurtu daitezke.

Hizkuntz proiektuetan inplikatzaren diren enpresak erronkei erantzuteko gaitasuna dutenak izango dira. Proiektu berritzaileei ekiteko gai den enpresa dinamikoaren irudia isladatuko du bere bezero, hornitzaile eta inguruko gizarte osoan.

Euskara, enpresaren irudi eta markaren alderdi bihurtuz, marketing-argumentutzat erabil dezake euskal merkataritza eta industriak. Merkatuak zabaldu eta nazioarteko bihurtzen ari zaizkigun garaian, enpresek gero eta beharrezkoa dute osagai identifikatzaileak landu eta garatzea. Enpresaren jatorria eta jatorri horri lotutako hizkuntza erabiltzea izan daiteke euskal gizartearen marka edo labela arlo sozioekonomikoan ere bai.





LAN-MUNDURAKO HIZKUNTZ POLITIKAREN HELBURUAK

Lan-mundurako hizkuntz politikak maila desberdinetako helburuak izan behar ditu. Ondorengo helburuak betetzera jo beharko du hizkuntz politika horrek:

Lan-munduan euskararen normalizazioa lantzea ezinbestekoa dela, eta horretarako, hizkuntz politika bat aplikatu beharra dagoela gizarteak ontzat ematea.

Lan-munduko agente desberdinak, hala nola, enpresari eta enpresari-elkarteak, elkargo profesionalak, sindikatuak, etab. lan-mundua euskalduntzeko hizkuntz politikan inplikatu eta partaide bihurtzea.

Lantokietan euskararen aldeko proiektu eta politikak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak bideratzea.

Lantokien tipologia desberdinen araberako proiektuak diseinatu eta gauzatzea.





LAN-MUNDURAKO HIZKUNTZ POLITIKAREN OINARRIAK

Ez gara hutsetik abiatzen. Azken urteetan hainbat esperientzia egin dira lan-munduan proiektu desberdinak landuz. Sarreran esan bezala, Euskararen Aholku Batzordearen aurreko indarraldian ere lan-munduaren gaiari heldu zitzaion eta dokumentu haietan ezarritako printzipio eta landutako lehentasunak aplikatuz, hainbat proiektu pilotu bideratu dira zenbait enpresatan. Proiektu horietan landutako metodologia baliozkoa dela frogatu ahal izan da.

Beste abiapuntu bat izan duten beste zenbait proiektu arrakastatsu ere landu dira azken urte hauetan eta ondorioz, euskalgintzak bereganatua du lan-munduko proiektuei ekiteko eskarmentua. Esperientzia horietatik honako ateratako honako ikaspen hauek azpimarratuko ditugu:

Proiektuen arrakasta eta helburuen iraunkortasuna bermatzeko ezinbestekoa da euskara enpresako beste edozein gai bezala planteatzea. Kalitatearen gaia enpresan hartu behar den modu berean, esate baterako. Honek euskara enpresaren gestioan kontutan hartzea esan nahi du. Hau da, enpresaren funtzio bakoitza planifikatzen, burutzen edo kontrolatzen denean hizkuntzaren alderdia kontutan izan behar da.

Proiektuen arrakasta eta helburuen iraunkortasuna bermatzeko ezinbestekoa da partaide guztien inplikazioa. Partaideen artean proiektu bakoitzaren iharduera-esparruko agente desberdinak hartu behar dira kontutan, hala nola, enpresetako zuzendaritza, langileak, sindikatuak, elkargo





profesionalak, dendari-elkarteak, jabegoa, etab. Proiektuan dagokion erantzukizunaren arabera inplikazioa eskatuko zaio partaide bakoitzari.

Inplikazioa lortzeko ezinbestekoa da proiektu guztiek informazioaren alderdia lantzea. Parte hartuko dutenen borondatezko atxikipena bilatu behar da eta atxikipen hori jarraia izan dadila. Hori lortzeko informazioa da tresnarik egokiena. Informazioa, sentsibilizaziotik, motibaziora eta hortik inplikazioraino eramango duen bidea egiteko ibilgailua izango da.

Proiektu bakoitzean, beraz, informazioaren alderdia aldeztu aurretik planifikatu beharko da.

Proiektuak aplikatuko diren enpresa, sektore edo udalerrira egokitu beharko dira. Proiektu bakoitzak bere ezaugarri propioak izango ditu honako alderdi hauek direla eta: enpresa edo negozioaren tamaina, euskaldunen portzentaia, bezeri mota eta honen jatorria, etab. Proiektuetarako oinarritzko printzipio eta metodologia landua izateak garrantzia handia badu ere, kasuan kasuko berezitasunak kontutan hartzea ezinbestekoa izango da proiektuak arrakasta izan dezan.





PROPOSAMENAK

GIZARTE OSOARI ZUZENDUTAKO KANPAINA BURUTZEA

Egoera

Gaur egun euskal gizartea, oraindik orain, ez da euskara lantokian edo bulegoan erabiltzearen garrantziaz jabetu. Euskara irakaskuntzan erabiltzea normalizat hartzen den bitartean, gero ikasketak amaitu ondoren lan-mundura iristean, kasu gehienetan erdarara jotzen da.

Helburuak

Euskara "hizkuntza oso" izateko, eguneroko lanorduetan euskara erabiltzea nahitaezkoa dela erakustea. Erabaki hori gainera, enpresaren helburu ekonomikoen kontra ez dagoela adieraztea.

Baliabideak

Erakunde publikoek kanpaina instituzionalak antolatzea eta bultzatzea (duela urte batzuk kalitatearen inguruan egindako "zero akats" kanpaina edota "euskal lehengaiari" buruz antolatu zirenak adibidetzat har litezke).





Helburu hori duen kanpaina Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailarekin eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin elkarlanean landu beharko litzateke.

Kanpainaren mezuaren hartzaileak esparru sozioekonomikoan diharduten agenteak izango lirateke: enpresariak eta enpresari-elkarteak, langileak eta sindikatuak, elkargo profesionalak, merkatariak eta merkataritza-elkarteak, trebakuntza profesional arautu eta ez-arautuan diharduten kolektiboak, etab.

ENPRESA-ERAKUNDEAK, SINDIKATUAK ETA ELKARGO PROFESION- ALAK INPLIKATZEA

Egoera

Lan-munduan, enpresa-erakundeak, sindikatuak, merkataritza-ganbarak eta elkargo profesionalak garrantzi handiko erakundeak dira. Lan-mundua euskalduntzeko, erakunde horien laguntza eta parte-hartzea beharrezkoa da. Gaur egun, euskara ez da kontutan hartzen berauen helburuen artean. Gainera, erakunde horiek antolatzen dituzten ikastaroak eta zabaltzen dituzten materialak, kasu gehienetan, gaztelaniaz bakarrik izaten dira.





Helburuak

Erakunde horien barne-egitura euskalduntzea eta partaideei eskaintzen zaizkien zerbitzuetan (buletinak, orri informatiboak, ikastaroak, ihardunaldiak, etab.) eta komunikabideekin dituzten harremanetan euskararen erabilpena sendotzea.

Baliabideak

a) Eusko Jaurlaritzako Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren menpe dauden zenbait erakundetan (SPRI, CADEM adibidez), irizpide bera erabiliz, enpresa-munduari eskaintzen zaizkion zerbitzuetan euskara erabiltzea. Honek erakunde horietara egokitutako plangintzak lantzea ekarri behar du.

b) Lan-munduan diharduten enpresa-erakunde, sindikatu, merkataritza-ganbara eta elkargo profesionaletarako hizkuntz plangintzak landu eta aplikatzea.

c) Elkarrekin eta organizazio horiek diru-laguntza publikoak jasotzen dituzte trebakuntza-saioetarako (Diputazioetatik bereziki; Gipuzkoaren kasuan Hezitek eta Hezilan, adibidez). Aipatutako erakundeez gain, unibertsitatea, zentro teknologikoak, lanbide-heziketako zentroak eta institutuak ere parte hartzen dute. Erakunde horietan, gaur egun badago nahikoa jende ikastaro-kopuru nabarmena euskaraz eskaintzeko; hala ere, hori ez da gertatzen. Erakunde publikoek diruz laguntzen dituztenez, eskakizunik ezar dezakete zenbait ikastaro euskaraz izan daitezen.





EUSKARA LAN-MUNDUAN ERABILTZEKO PROIEKTUAK GAUZATZEA

Egoera

Azken urte hauetan zenbait proiektu arrakastatsu gauzatu dira lan-munduan. Enpresetarako landu diren mikroplangintzak edota zenbait udalerritan merkataritzarako landu diren hitzarmen bidezko proiektuak esate baterako. Esperientzia horiek oinarritzat har litezke beste enpresa eta udalerritan aplikatzeko.

Helburuak

- a) Mikroplangintzaren metodologia erabiliz, enpresa eta erakunde gehiagotan planak gauzatzea. Enpresa eta erakunde horiek "irla" izatetik, multzoak osatzera jo beharko litzateke sinergiak bilatuz: esate baterako, beraien artean "bezero" eta "hornitzaile" motako harremanak dituzten enpresak, eskualde berean ari direnak, sektore berekoak, etab.
- b) Era berean, administrazioaren menpe dauden enpresetan ere mikroplangintzak gauzatzea. Hauen artean, Eusko Trenbideak, ETB, Naturgas, etab. aipa daitezke adibide moduan.
- c) Merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko landutako metodologia udalerrri gehiagotara zabaltzea eta udalerriz gaindiko helburuetarako koordinazioa eta behar diren bitartekoak bideratzea.





d) Bi tipologia horietan sartzen ez diren enpresa eta erakundeetako hizkuntz plangintzetarako metodologiak landu eta aplikatzea.

Baliabideak

Datozen urteetan asko izan daitezke hizkuntz proiektuetan inplikatu nahi izango duten lantoki eta bestelako organizazioak. Hori kontutan hartuta, proiektu horietarako giza eta diru-baliabideetarako aur-reikuspenak egitea ezinbestekoa izango da. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaz gain, Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren eta Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren inplikazioa beharrezkoa izango da atal honetan ere bai.

Laguntza horrek bi alderdi izan beharko ditu:

a) Laguntza teknikoa. Proiektuak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzeko teknikari trebatuak beharko dira eta hauek enpresen eskura jarri.

b) Diru-laguntzak. Proiektuak enpresetan gauzatu ahal izateko diru-baliabideak ere esleitu beharko dira plangintza hauetarako. Laguntza-mota honek beste bide batzuk ere har ditzake, hala nola, planak gauzatzeko behar diren teknikari eta irakasleak enpresaren eskura jartzea, hobari fiskalak eskaintzea, mpublizitate berezia eskaintzea, etab.

